

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

2017ko Nafarroa ikusgai dago jadanik SITNAren web-orrian, zerutik ikusita

Foru Komunitatearen ortoargazkien katalogoa eguneratu da, 2014koa zena, eta irudien bereizmena hobetu da

Asteartea, 2017.eko abenduak 12

Herri Lanetako Zuzendaritza Nagusiak Nafarroako 2017ko ortoargazki zehatza argitaratu du [SITNAren web-orrian](#) (Nafarroako lurraldeko informazio sistema). Horrela, erabilgarri zegoen azken katalogoa eguneratu du, 2014koa zelako, eta hartutako irudien bereizmena hobetu du.



Ortoargazki honekin 2012ko xehetasunera itzuli da, 25 cm-ko bereizmen bereziarekin. Horrenbestez, 2014ko ortoargazkiaren bereizmena hobetu da (5 cm/pixel) eta, ondorioz, argitasuna ere bai. Produktu honekin, behin argazkiaren inklinazioaren, erliebearen eta proiektzio konikoaren eraginak zuzenduta, neurketa zehatzak egin daitezke, lurrian; pixel batekoak hain zuzen.

Argitaratutako irudiek Foru Komunitatearen lurraldearen informazio eguneratua ematen dute, eta Nafarroako Gobernuaz gain, obra zibilarekin, hirigintzarekin, katastroarekin edo basoen eta baliabide agronomikoen kudeaketarekin zerikusia duten gaietan interesa duten pertsonen ere erabili ahalko dute. Halaber, ortoargazkia Espainiako Nekazaritza Bermeko Funtzak (FEGA) erabiliko du Nafarroako PACen laguntzetarako.


Produktu hau Oinarrizko Informazio Geografikotzat hartzen da SITNAn, ezinbestekoa da Nafarroako Gobernuaren sailerako, erreferentziako informaziotzat erabiltzen da beste produktu batzuk sortzeko eta dauden produktuak eguneratzeko. Bestalde, hainbat aplikaziotan erreferentziatzat erabiltzen da.

Ortoargazkiaren ekoizpena eta kontrola Garapen Ekonomikorako Departamentuak egin du Institutu Geografiko Nazionalaren (IGN) lankidetzarako, Airetiko Ortoargazkien Plan Nazionalaren (PNOA) barruan. Irudiak ekainean eta uztailan hartu dira. Ateratzeko hauek erabili dira: hegazkin txiki bat, formatu handiko argazki-kamera fotogrametrikoa, Nafarroako Geodesia Aktiboko Sarearen (RGAN) estazio iraunkorrak eta informazio kopuru handia prozesatzen duen azpiegitura teknologiko bat. Lan hauek Tracasa Instrumental enpresa publikoak egin ditu.

Xehetasun teknikoak

Lortutako azken produktua Foru Komunitatearen lurralde osoko ortoargazki jarraitua da, 25 cm-ko bereizmen espazialarekin eta pixel bat baino gutxiagoko zehaztasun geometrikoarekin.

Irudiak Partenavia P68 hegazkin txiki batetik atera dira, eta besteak beste formatu handiko Leica ADS80 SH82 argazki-kamera fotogrametrikoko digital bat, PAV80 plataforma giroekongortu bat, hegaldia planifikatzeko/kontrolatzeko softwarea eta irudiak zuzentzeko softwarea. Sistema konplexua da, eta eremuan neurtutako laguntza-puntuak eta hegazkinaren nabigazio-sistemen informazioa behar dira, Nafarroako Geodesia Aktiboko Sarearen (RGAN) datuekin doitutakoa.



Ortoargazki historikoak

2017. urte honetako nobedadeetako bat 1945. eta 1946., 56/57 eta 1966-71 urteetako ortoargazki historikoen katalogoa ekarpen berriekin eguneratu dela da. Atal historiko honetan lurraldearen zati bat 1929ko urtean egindakoekin osatzea geratuko litzateke.

Garapen Ekonomikorako Departamentua aspaldi hasi zen lanean Nafarroaren gainean egindako hegaldi historikoak nabarmentzeko, zenbait erakundetan daudenak, eta herritarrei aurreko hamarkadetako lurraldearen airetiko bistei buruzko informazio objektiboa emateko.

Xede horretarako, beste bi ortoargazki prestatu dira, 1929., 1956-57. eta 1982. urteetako serieak osatzeko (batzuk oraindik partzialak dira). Herritarrentzako erabilgarri handiago honi esker, aldi anitzeko konparazio-azterkertak egin daitezke, eta Nafarroari buruzko ezagutza handitu eta hobeto daiteke.

1945/46ko ortoargazkia Nafarroako Gobernuaren eta IGN/CNIG (Instituto Geografiko Nazionalea eta Informazio Geografikoko Zentro Nazionalea) arteko lankidetzaren barruan egin da.

A serieari dagokion hegaldia da, "Hegaldi Amerikarra" deritzona (AMS/Aireko armada), eta aurretik argitaratutako B seriearen aurrekoa da (1956-57). Jatorrizko negatiboen eta eskaneatutako irudi digitalen jabea Defentsa Ministerioa (MINISDEF-EA) da, baina IGNri produktu hau sortzeko dokumentazioa utzi dio. Honek, bestalde, Nafarroako Gobernuari utzi dio. Guztira 2.000 irudi baino gehiago dira, eta gutxi gorabehera pixel bakoitza 50 cm-koa da. Zehaztasun teknikoak ezagutzen ez diren argazki-kamera fotogrametrikoein egin zen hegaldia, beraz, zailagoa izango da ortozuzenketa egitea. Jatorrizko negatiboen kontserbazio-egoera txarra dela eta (bereziki Nafarroako hegoaldeko eremuan nabaritzen da), zailagoa izan da ortoargazki hau egitea, hala ere, bere balio historikoa handia da, zalantzarik gabe.

66-71 aldiaren ortoargazkiari dagokionez, irudi gehienak 1966-67 urteen artean egindako hegaldietatik datoz. Garai horretako Nafarroako Foru Diputazioaren Herri Lan Departamentuak egindako lehen hegaldi fotogrametrikokoak dira. Hala ere, aipatutako hegaldian ez zen barne hartu Foru Komunitateko lurralde osoa, eta jadanik dauden beste hegaldi partzial batzuekin osatu da, 1969., 1970. eta 1970. urteetakoekin hain zuzen, Departamentu berarenak direnak.

Aurreko ortoargazkian ez bezala, kasu honetan, negatiboak digitalizatu behar izan dira alde aurretik, eta geroago gutxi gorabeherako georreferentziarioa egin da. Lan hauek ia Nafarroako Foru Komunitate osoa barne hartzen duten 3.000 negatiboekin egin da, Petilla Aragoi eta iparraldeko eremu txikiak (Baztango eta Luzaidako muturrak) izan ezik. Hegaldien data desberdinak direla eta, kamera desberdinekin hartutako irudiak daude, eta garaierak ez dira homogeenak. Data desberdineko eremuen irudien arteko arazo horiek konponduta, produktu jarraitu eta homogeenoa lortu da. Pixelaren gutxi gorabeherako tamaina 50 cm da.

Ekoizpen-lanez Tracasa Instrumental enpresa arduratu da, eta horretarako, gaur egungo argazkiak sortzean erabiltzen diren antzeko teknikak erabili ditu, baina teknologia erabilgarri dagoen informazio historikora egokitu du. Bestalde, eskuzko prozesuak egin ditu zenbait fasetan, metrika eta balio historiko handia duen produktu bat lortzeko.